

Eureka! Zientzia Museoak "ANIMALIA" aretoa inauguratu du, animaliei buruzko jakintza eta haiekiko errespetua sustatzeko.

Donostia, 2015eko maiatzaren 7a. Eureka! Zientzia Museoaren "ANIMALIA" areto berriak hiru ekosistema bereizi ditu, eta giro berezi horien adierazgarri diren 20 bizidun espeziez gora jarri ditu erakusgai, 260 m²-ko azalera duen instalazio batean.

Zer da "ANIMALIA"?

Areto honetan hiru giro islatu nahi izan ditugu: oihan tropikala, basamortua eta itsasoa, azken hori itsas baltsa baten bitartez. Giro berezi honetan, bisitariek aukera izango dute ekosistema bakoitzean bizi diren animalia adierazgarrienak ikusteko.



OIHAN TROPIKALA

- Pitoi-suge albinoa
- Suge koral aizuna
- Gezi-igela
- Urre-koloreko igela
- Uretako dortoka
- Lehorreko dortoka
- Kaiman-dortoka
- Eskorpioi beltza
- Belaun gorridun tarantula
- Intsektu makila erraldoia
- Intsektu hosto erraldoia
- Pantera-kamaleoia
- Iguana berdea
- Kaiman betaurrekoduna



BASAMORTUKO GIROA

- Lehoiabar-geckoa
- Dragoi bizarduna

ITSAS BALSA

- Itsas izar gorria
- Itsas trikuak
- Gorgonia
- Posidonia-bola
- Itsas txapela
- Itsas belakia
- Itsas kurkuiluak
- Karramarro ermitauak
- Freddy arraina
- Muskuilu eta ostrak
- Katu-marrazoa

Ordutegia eta prezioa:

"ANIMALIA" areto berria museoko erakusketa iraunkorraren barruan dago, eta museoko sarrera ordaintzeak aukera ematen du aretoari bisitaldi librea egiteko.

- 18 urtez azpikoak, 65 urtez gorakoak eta familia ugariak: 7 € / pertsona bakoitzeko.
- Helduak: 10 € / pertsona bakoitzeko.

Museoa zabalik egoten den ordutegian ikus daiteke gunea:

- Astelehenetan, 10:00etatik 16:00etara.
- Asteartetik ostiralera, 10:00etatik 19:00etara.
- Larunbat, igande eta jaiegunetan 11:00etatik 20:00etara.

1. Zertarako inauguratu dute “ANIMALIA” aretoa?

.....

.....

.....

2. Zenbat giro aipatzen dira testuan ?

- A. Zazpi.
- B. Hogeita zazpi.
- C. Hiru.
- D. Ez da horrelakorik aipatzen testuan.

3. Zein da eskorpioi beltzaren ekosistema?

- A. ITSAS BALTSA.
- B. OIHAN TROPIKALA.
- C. EKOSISTEMA ADIERAZGARRIA.
- D. BASAMORTUKO GIROA.

4. Zergatik jarri dituzte animalien irudiak testu honetan?

- A. Testua apaintzeko soilik.
- B. Ekosistema bakoitzeko animalia ereduak erakusteko.
- C. Argazkietakoak animalia bitxiak direlako.
- D. Denak obiparoak direlako.

5. Museoko sarrera ordainduz gero, zer bisitatu dezakezu?

- A. ANIMALIA aretoa bakarrik.
- B. Astegunetan bakarrik museo osoa.
- C. Museo osoa areto berria barne.
- D. 18 urtez azpikoa banaiz museoko erakusketak soilik.

6. Zein egunetan ixten dute lehenago museoa?

- A. Ostiraletan.
- B. Igandeetan.
- C. Egunero ixten dute ordu berean.
- D. Astelehenetan.

7. Non dago ANIMALIA aretoa?

- A. Aquariumean.
- B. Planetarioan.
- C. Eureka! Zientzia Museoan.
- D. Euskal Zientzia Museoan.

8. 70 urteko aitonak gonbidatu zaitu museora. Zenbat ordainduko du sarrera bakoitzeko?

- A. Aitonak 10 euro eta nik 7 euro.
- B. 7 euro bakoitzeko.
- C. 10 euro bakoitzeko.
- D. Sarrerak oparitu dizkiote eta dohain sartu gara.